

# Sopela

## gurea

A B E N D U A | 2 0 2 3



**BADATOS GABONAK  
SOPELARA!  
UDALAK PROGRAMAZIO  
MARDULA PRESTATU DU  
GABONETARAKO**

### ORDENANZA PARA CONVERTIR LONJAS COMERCIALES EN VIVIENDAS VPO

El Ayuntamiento elaborará una ordenanza para la implantación de viviendas en los locales de las plantas bajas de edificios.

**3.orrialdea**

### ELKARRIZKETA

Mikel Bizar: *"La música es sentimiento siempre. Te puede transmitir rabia, dolor, amor, desamor. Te hace reír y llorar. Es el camino perfecto para tocarte el alma"*

**6.orrialdea**

### ELKARRIZKETA

Ihart Arakistain: *"Gero eta neska gehiago gaude zesta puntaren munduan, jendeak ikusi egin nahi gaitu eta frontoiak betetzeko gai garelara erakutsi dugu"*

**8.orrialdea**



# PREGUNTA DEL MES

¿Qué polifacético músico bilbaíno y residente en Sopela publicó el pasado mes de junio "El Amanecer Del Fuego Negro", segunda parte de "Esa Maravillosa Niebla", un libro disco que pretende visibilizar y normalizar el Síndrome de down y el Trastorno del Espectro Autista?

Entre los e-mails que nos lleguen a [komunikazioa@sopela.eus](mailto:komunikazioa@sopela.eus) con la respuesta acertada sortaremos un vale de descuento de 20 euros, cortesía de nuestro comercio del mes **FÚSSUME SHOWROOM**.

¡Anímate y participa! La persona ganadora de la pregunta del mes anterior: **OLATZ GOIRIGOLZARRI**.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

### Teléfonos de interés

UDALA Ayuntamiento  
94 406 55 00

UDALTZAINGOA Policía Municipal  
94 406 55 11

KURTZIO KULTUR ETXEA  
94 406 55 05

UDAL LIBURUTEGIA Biblioteca Municipal  
94 406 55 08

KIROLDEGIA - IGERILEKUAK  
Polideportivo - Piscinas  
94 406 55 20

UDAL PILOTALEKUA Frontón Municipal  
94 676 44 04

GIZARTE ZERBITZUAK  
Servicios Sociales  
94 676 37 83

UDAL EUSKALTEGIA Euskaltegi Municipal  
94 676 31 54

KZ GUNEA SOPELA  
94 403 34 06  
[tutor.sopela@kzgunea.net](mailto:tutor.sopela@kzgunea.net)

BAKE EPAITEGIA Juzgado de Paz  
94 676 33 55

TAXI GELTOKIA Parada de Taxi  
94 676 10 03

TURISMO BULEGOA Oficina de Turismo  
94 406 55 19

CRUZ ROJA 94 410 10 10

LARRIALDIAK Emergencias 112

OSASUN ZENTROA Centro de Salud  
94 676 41 19

EUSKARA ZERBITZUA  
94 657 92 79

[www.sopelaneuskarazatseginez.com](http://www.sopelaneuskarazatseginez.com)  
HIZKUNTZ ESKUBIDEEN  
URRAKETAK SALATZEKO  
902 19 43 32 (Behatokia)

GENERO - BIOLENTZIA KASUETAN  
LAGUNTZEKO TELEFONOA  
Teléfono de Asistencia sobre  
Violencia de Género 016

BERDINTASUN SAILA  
94 657 92 82

EUSKO JAURLARITZA  
900 840 111

### Ludotekako abenduko programazioa

- 1: Ipuin kontalaria eta Liburuteka
- 2: Olentzeroren etxera irteera
- 4, 5: Gabonak
- 6, 7, 8, 9: Itxita
- 11, 12, 13, 14, 15, 18, 19, 20, 21: Gabonetako Postal Lehiaketa
- 16: Talo Lehiaketa
- 22: Zinema: Polar express
- 23: Sari Banaketa

\*Abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra arte Ludoteka itxita!



### Gaztelekuko abenduko programazioa

- 1: Xake Txapelketa
- 2: Marrazketa Eguna
- 3: Euskararen Eguna
- 8: Itxita
- 9: Puzzleen Eguna
- 10: Zinema
- 15: Karta Jokoak
- 16: Ping Pong Txapelketa
- 17: Jolas librea
- 22: Dardo Txapelketa
- 23: Eskulanak
- 24: Hasi dantzatzen
- 26, 27, 28: Gabonetako tailerrak
- 29: Irakurketa eguna
- 30: Bingo
- 31: Jolas librea

\*Parte hartzeko izena eman behar da Gaztelekuan, Informazio gehiago: 607 526 546 telefono zenbakian (WhatsApp)

## HABE eta Sopelako Udalaren arteko Hitzarmena

2023-2024 ikasturtean euskararen C1 maila ateratzea helburu duten 16-18 urteko ikasleentzako dirulaguntza! 20 €!

Eskabide-formularioa euskaltegian bete beharko da. Eskabide-formulario horretan honakoak jasoko dira:

- » NANaren kopia
- » Ikasleak ordaindu beharko duen ikastaroaren 20 euroko matrikulazatiari dagokion ordainagiria.

Informa zaitetz konpromisorik gabe!

- » Euskaltegian bertan (Enrike Urrutikoetxea kalea 10, Sopela)
- » Telefonoz: 946763154 / 944065514
- » Emailaz: [euskaltegia@sopela.eus](mailto:euskaltegia@sopela.eus)



### TAMAINA HANDIKO TRASTEEN BILKETA RECOGIDA DE VOLUMINOSOS

T. 900 720 631

Wasap: 638 54 32 95

[trastezaharrak@enviser.net](mailto:trastezaharrak@enviser.net)

Noiz atara zure hondakinak?  
DOMEGA GAUEAN  
Non utzi? Zabor edukiontzien  
ondoan, inoiz ez barruan.

¿Cuándo sacar tus residuos?  
EL DOMINGO POR LA NOCHE  
¿Dónde depositarlos? Cerca de un  
contenedor de basura, nunca dentro.





# El Ayuntamiento realizará una ordenanza para facilitar la conversión de lonjas comerciales en viviendas bajo condiciones de VPO

Ante la falta de oferta de vivienda a un precio asequible y siguiendo la amplia demanda de vecinos que no pueden acceder a una vivienda digna para desarrollar un proyecto de vida, el Ayuntamiento de Sopela ha iniciado el proceso de elaboración de una ordenanza para la implantación de viviendas en los locales de las plantas bajas de los edificios residenciales.

*“Con esta ordenanza se intenta aumentar el número de viviendas disponibles sin necesidad de utilizar nuevo suelo, y además que los propietarios-as de esos locales inutilizados tengan una salida para los mismos, a la vez que se mejora la imagen de las zonas en que están situados teniendo como objetivo la optimización del patrimonio edificado y facilitar el derecho de las personas a una vivienda digna”,* ha señalado la alcaldesa Guruzne Carrasson.

El objetivo de esta norma es posibilitar la transformación de estos locales, cerrados y sin función comercial, en viviendas en condiciones de VPO, propiciando un incremento de la oferta con unos precios más asequibles y facilitar así la



posibilidad de acceso a una vivienda digna, sin detrimento de que tienen que ser unas viviendas con unas condiciones adecuadas de habitabilidad.

*“Sin embargo, esta medida no puede suponer un perjuicio para el desarrollo comercial del municipio. Así, parece razonable delimitar las zonas en las que sea posible la transformación de locales comerciales a vivienda, y no penalizar el desarrollo del comercio del municipio”,* ha asegurado Carrasson.

## CONSULTA PÚBLICA

Como paso previo a la elaboración del texto legal que lo regule se ha abierto un periodo de consulta pública en el que la ciudadanía podrá presentar sus aportaciones y opiniones. El plazo de consulta pública estará disponible hasta el 13 de diciembre de 2023 y podrá realizarse en el registro electrónico del Ayuntamiento de Sopela y en las oficinas de atención ciudadana del Ayuntamiento de Sopela en horario de 09:00 a 13:30.

## Solondota kalearen irisgarritasuna hobetzeko obrak amaitu ditu Udalak

Sopelako Udalak berriki amaitu ditu Solondota kaleko irisgarritasuna hobetzeko eta berrurbanizatzeko lanak, Bizkaiko Foru Aldundiko “Herriak Egiten” funtsen finantzazioarekin. Lanek, irisgarritasun unibertzala bermatzeko eta inguruko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko helburu nagusiarekin egin dira.

Hobekuntza nabarmenen artean honako hauek daude:

- » Kalearen sekzioa aldatzea, aparkaleku-plazak kenduz eta zebreatuak pintatuz, gutxienez 3 metroko erre zabalera bermatzeko kalean, 12,36 metroko luzera duen suhiltzaileen ibilgailu batek zirkulatu ahal izan dezan.
- » Eskuineko ertzean dagoen espaloia 2,00 metroko zabalera handitzea.
- » Espaloia birjartzea, Bilbo motako baldosa eta granitozko zintarriak jarrita.

- » Kalearen bi ertzetan dagoen espaloien jarraitutasuna, ibilgailuentzako pasabideak eta oinezkoentzako pasabideak eginez
- » Oinezkoen iragazkortasuna hobetzea, oinezkoentzako pasabide berriak eginez.
- » Drainatze-sarea hobetzea, kalearen bi ertzetan hustubide berriak eginez.
- » Argiztapen-sarea aldatzea, zutabeak margotu eta espaloien kanpoko zintarrirantz mugituz.
- » Saneamendu-sareari dagokionez, ibilgailuen bidetik doan sare orokor nagusi bat egin da lursail pribatuetatik igarotzen den kolektore nagusia desbideratzeko, horrela, etxebizitzetan sortzen ziren uholde-arazoak saihestuz.

## KONPROMISOA

*“Solondota kalea berrurbanizatzeko proiektua Udalak biztanleen bizi-kalitatea etengabe hobetzeko duen konpromisoaren erakusle da, hirigarapen iraunkorra, inklusiboa eta ingurumenarekiko lagunkoia bilatuz”, nabarmendu du Guruzne Carrasson alkateak.*



# DECLARACIÓN INSTITUCIONAL POR EL 25N, DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

En el día 25 de noviembre, día internacional para la eliminación de violencia hacia las mujeres, desde el Ayuntamiento de Sopela queremos poner la atención en la creciente incidencia de la violencia sexual entre menores como una de las formas de violencia que resulta más invisibilizada y normalizada, y que sigue aumentando de año en año.

Según diferentes informes, hasta un 40% de las víctimas de delitos sexuales son personas menores de edad, mayoritariamente niñas y adolescentes. Aumenta también el porcentaje de delitos contra la libertad sexual cometidos por menores de edad. Aunque también han aumentado las peticiones de ayuda especializada, los datos reflejan que las chicas presentan serias dificultades para detectar ciertas manifestaciones de violencia en su propio comportamiento, tanto en el grupo de iguales como en sus relaciones afectivas.

El movimiento feminista y las expertas apuntan como causas la ausencia de educación sexual de calidad con perspectiva de género y la falta de transmisión de los valores sociales adecuados en las familias y entornos escolares. Asimismo, se alerta sobre la difusión entre los menores de mitos y estereotipos de género, así como la sexualización infantil y la iniciación sexual temprana a través de la pornografía, en mayor grado, en las redes sociales de uso habitual. En muchos casos, se detecta además la falta de credibilidad de las víctimas, lo que impide la intervención precoz y reparadora en los casos de abusos y agresiones sexuales a menores.

Como resultado de todo ello, se ha extendido un imaginario distorsionado de relaciones afectivo-sexuales y del rol de hombres y mujeres en las mismas.

Se banaliza y legitima el ejercicio de la violencia sexual como forma de dominación

sobre las mujeres, sus deseos y sus cuerpos. Los comportamientos más graves pueden derivar hacia las agresiones sexuales y físicas e incluso, en sus formas más extremas, en los asesinatos de mujeres.

Ante todo ello, las instituciones vascas han de promover todas las estrategias y mecanismos a su alcance para que las mujeres y las niñas tengan un desarrollo de vida pleno, en condiciones de libertad y seguridad. En concreto, para que puedan expresar sus deseos, afectos y comportamientos sexuales sin coacciones y violencias, al margen de los estereotipos y mandatos de género.

Los Ayuntamientos, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, son responsables de favorecer las condiciones para una convivencia igualitaria y libre de violencias en los municipios. Por tanto, el Ayuntamiento de Sopela se compromete a:

- ♀ Articular/ mejorar/ reforzar la estrategia local de prevención de la violencia machista disponiendo las estructuras, recursos, servicios o programas para hacer frente a la violencia sexual entre personas menores.
- ♀ Habilitar/mejorar la detección y atención precoz de violencias sexuales en el entorno de las víctimas menores a través de los protocolos locales de coordinación
- ♀ Diseñar /implementar/ y evaluar programas de formación de los profesionales que intervienen con víctimas de violencias sexuales.
- ♀ Diseñar/desarrollar/mejorar programas de sensibilización con la ciudadanía, y especialmente madres, padres y profesorado, con las AMPAS, sobre la necesidad de una educación sexual de calidad con enfo-

que de género.

- ♀ Contribuir desde los espacios de educación no formal a desarrollar procesos educativos que refuercen las actitudes contra la violencia machista en menores,

En base a dichos compromisos, se proponen las siguientes acciones:

- ♀ Refuerzo de los programas de empoderamiento dirigidos a las niñas y adolescentes sobre la sexualidad, relaciones de pareja, amor romántico, talleres de autodefensa feminista, ...
- ♀ Puesta en marcha de intervenciones dirigidas a los niños y chicos para trabajar la afectividad, los modelos relacionales, los modelos de masculinidad, o las estrategias de superación de roles sexistas y la paridad.
- ♀ Elaboración de estrategias de prevención y respuesta a la violencia digital, combatiendo también estas nuevas formas de violencia machista.
- ♀ Reforzar procesos educativos con menores del municipio a través del programa BELDUR BARIK y otras iniciativas de impulso local.



## Euskara eta bidea

Euskararentzat egoera berezian iritsiko da 2023ko Euskararen Nazioarteko Eguna. Urte luzeetan administrazioa euskalduntzen egindako lanak oinarri izan duen egitura juridikoa zalantzan jarri duten hainbat epairen ondotik, inoizko herritarren erantzun handienaren biharamunean baikeude.

Hizkuntza gutxitua da gurea, ordea, eta hizkuntza gutxitu baten biziberritze prozesuan egiten den sustapena eraginkorra izango bada, babesa behar du.



Baina zer egin dezakegu honen aurreran? Zer egin dezake norbanako, elkarte edo eragile batek?

Euskal komunitatea ahalduz, motibatuz eta aktibatuz ekimenak eta tresnak garatu eta zabaldu behar ditugu. Euskaltzale mugimendua indartu, alegia. Izan ere, biziberritze prozesu honetan nekez egingo dugu aurrera mugimendurik gabe. Horretarako, euskaltzale aktibo eta ilusioz betetakoak behar ditugu; euskararen aldeotasuna indartu eta euskaraz bizi nahi dutenak. Eta lan horretan udala izango dute bidelagun.

Gure herria aldatu da eta sareteko moduak ere aldatu dira, eta beraz, egokitzen ikasi behar dugu; sareteko ditugun aukeretan sakonduz, ekimen parte-hartzaileak sustatuz edota erabilera espazioak sortuz eta hedatuz.

Euskaraz bizi nahi dugunok, euskaraz jakin ez arrear herri euskaldunago bat desio dutenek, elkarteek, udalek, ikasleek, langileek... Sopela auzoz auzo eta eremuz eremu biziberritzeko garaia da.

## Sopela euskal hiztun gehien biltzen dituen Uribe Kostako udalerria da

Mankomunitateko euskara zerbitzuak egindako azken inkestak agerian uzten du Sopela dela euskal hiztun gehien biltzen dituen Uribe Kostako udalerria. Sopelak dituen 13.850 biztanleetatik, % 46,2k erraz hitz egiten du euskaraz. Ondoren, Plentzia, Berango, Lemoiz eta Gortiz daude. Datuak 2021ean hartu ziren, baina aurten argitaratu dira. Datu horien arabera, eskualdeko euskalduntze-joera aldekoa da: hamar herritarretik batek bakarrik ez du ezertxo ere ulertzen euskaraz, eta % 56 baino gehiago euskalduna da edo ia izateko zorian dago.

Sopelako Udaleko Kultura zinegotzia den Aitziber Onaindiaren ustez, ez dago "formula sekretu edo miragarrik" Sopela euskara gehien hitz egiten den Uribe Kostako udalerrira gisa nabarmentzeko. "Kontua ez da Uribe Kostako herririk "euskaltzaleena" izatea, ezta lehiaketa batean parte hartzea ere, euskara gure nortasun propioaren zati integral gisa ulertzen baitugu", dio. Zinegotziaren ustez, biztanle gehien dituen herria denez, datu hori guztiz logikoa da. Hala ere, "datu horiek argi eta garbi adierazten dute Sopelak euskaraz bizi nahi duela, eta agerian uzten dute haren erabilera zaintzearen eta sustatzearen garrantziari buruzko kontzientziarioa".

Udal gisa, konpromisoa irmoa da. "Gure ustez, euskara zeharkako elementua da gure administrazioko eremu eta arlo guztietan. Lehentasuna ematen diogu euskararen erabilera sustatzen duten tokiko politikak ezartzeari, eta euskararen presentzia aktiboaren alde egiten dugu, bai hezkuntzan, bai komunitate-bizitzan. Sopela euskaraz hitz egiteko leku naturala eta erraza izatea bilatzen dugu, eta haren erabilera errealitate izan dadin beharrezkoak diren tresna guztiak ematen ahaleginduko gara, aukera bat baino gehiago izan ez dadin".

## Familia eta hezkuntzari buruzko IX. jardunaldiak abian

Uribe Kostako Mankomunitateko esku-hartze sozioedukatiboko taldeak izena emateko epea ireki du familia eta hezkuntza jardunaldien bederatzigarren edizioan parte hartzeko, abenduaren 4tik 15era garatuko direnak. Oraingo honetan, programaturako saioak egoera zaileri (maite den pertsona baten heriotza, banaketak...) eta autolesioei aurre egiteko moduari buruzkoak izango dira.

Naiara Pujana Gorostizak eta Nora Andreu Serranok gidatuko dituzten saioak Uribe Kostako hainbat ikastetxetan garatuko dira. Parte-hartzaileek nahi adina saiotan izena emtako aukera izango dute, erreferentziako ikastetxean ez bada ere. Informazio gehiago: [www.uribekosta.eus](http://www.uribekosta.eus).





## Mikel Bizar: *“La música es sentimiento siempre. Te puede transmitir rabia, dolor, amor, desamor. Te hace reír y llorar. Es el camino perfecto para tocarte el alma”*

El polifacético músico bilbaino – desde hace años, residente en Sopela- Mikel Bizar publicó el pasado mes de junio “El Amanecer Del Fuego Negro”, segunda parte de “Esa Maravillosa Niebla”, un libro disco con una historia de 230 páginas que pretende visibilizar y normalizar el Síndrome de down y el Trastorno del Espectro Autista. Una obra en la que el Ayuntamiento de Sopela no ha dudado en colaborar y que a través de nueve canciones repletas de melodías vibrantes y momentos mágicos, nos sumerge en una emocionante aventura con un mensaje social y educativo tan profundo como necesario.

### ¿Qué es “El Amanecer Del Fuego Negro” y de dónde nace?

Es un proyecto literato musical que tiene como objetivo normalizar y visibilizar el trastorno del Espectro autista, el síndrome de Down y la salud mental mediante la literatura y la música, o sea, un libro disco con una historia y su banda sonora. En directo, además, le sumamos la danza y el cine.

### ¿Cuál es el objetivo que subyace de este proyecto?

Sobre todo, remover, que nos haga pensar. La música sirve para trasladar sentimientos a través de cada nota, de cada pasaje. Hemos estado desde el principio en total comunión con familias que conviven con el TEA y con la propia Fundación Síndrome de Down del País vasco para que nos asesorasen sobre cada paso que dábamos. Procurar contar las realidades, rellenarlas de esperanza, pero dejando claro que la diversidad funcional ni es un camino de rosas ni está rodeada en muchas ocasiones de empatía e incluso ni de respeto.

### ¿Cómo ha sido el proceso creativo del proyecto?

Primero escribir las historias. En la primera parte continuo contacto con Mónica, ama de Ugaitz (Auritz en esta historia) y luego según íbamos desarrollándolas le fuimos poniendo música. La intención era que cada pasaje del libro se contase, se cantase y se instrumentase acorde a momentos.

### ¿Bueno, el proyecto cuenta con destacadas colaboraciones? ¿Qué nos puedes contar al respecto?

Cada voz y cada instrumento tienen su alma. Cada letra su significado. Estas por ejemplo son ambiguas, puedes escuchar una historia de amor y que el capítulo del libro te catapulte a un amor que a lo mejor no te esperas. El espectro del amor es tan amplio que se puede extrapolar a cualquier ámbito. Tenemos una letra de Rafa Rey ganador de dos Grammys, otra de Paula Mattheus y del productor Jagoba Ormaetxea que a la vez ha arreglado

todo. La voz de Leire Goti, la batería de Naiara, Alex Rodrigues a la guitarra, Javi Montilla a las teclas, Jorge Murillo al bajo y Julio Veiga con unos arreglos de piano bestiales.

Aparte de ello tenemos dentro el proyecto Estrella Dorada para el que hemos compuesto una canción. “Sé tú (Estrella dorada)”, habla sobre los valores en la vida y en el deporte. “Abraza al último” es una colaboración para la Fundación Bepro de Ana Salas. “Negra Flor” va directamente al Alzheimer en edades catalogadas como tempranas. “Tan solo tuya” está incluida en “Sin polilla en los armarios”, un libro homenaje a Manolita Chen.

### ¿Hay una concepción errónea e incluso desconocida en torno a las personas que sufren los síndromes que se tratan en este proyecto? ¿Siguen siendo un@ desconocid@s para la sociedad?

Totalmente. A las personas con SD se les trata como a niños o niñas. A las que tienen TEA simplemente se las colocan en un mundo que parece no sea el nuestro. Y el TEA es como el amor en la pregunta anterior. Tan amplio y diferente como personas que lo completan. Parece que si no nos coge de cerca lo ignoramos o incluso evitamos. Es muy importante empatizar y normalizar estos trastornos, porque simplemente podríamos hacer la vida más fácil a un montón de personas.

### Para ello, la música y el arte en general siempre ha sido una forma de reivindicación, ¿no?

La música es sentimiento siempre. Te puede transmitir rabia, dolor, amor, desamor. Te hace reír y llorar. Es el camino perfecto para tocarte el alma. Desde que estoy en la música he procurado siempre contar cosas. Gritar en clave de sol, de fa, en euskera y en castellano. Con la cabeza, con el corazón y con ambas. Esta vez la motivación ha sido extrema. Creo que estamos haciendo algo que de verdad sirve para algo. A nosotros y nosotras nos ha hecho pensar. Desde dentro ya estamos cambiando formas de funcionar de cara a las capacidades diferentes. Hemos aprendido



a tratar, a convivir y a tratarlo con la mayor normalidad posible.

### ¿Cuánto queda por hacer en ese sentido?

Queda todo. La concienciación de cada cosa. Es imposible llegar a todo, pero sí que hemos dado con la manera de hacerlo. Todo va por la vía del respeto y la empatía, sé que me repito, pero es así de sencillo. Ponerte los zapatos de otras personas, lleven tacones o sean chanquetas y recorrer todos los caminos.

### “Amanecer Del Fuego Negro” es la segunda parte de una trilogía. ¿Qué podemos esperar de esta última entrega?

Lo mismo que en la anterior. Mucho respeto por la diversidad y todas las ganas del mundo. Quizás la siguiente sea a la que más miedo tenga. A esa tercera y última parte. Va a tratar sobre la salud mental, sobre todo en los jóvenes. En momentos o fases que pueden marcar sus vidas. Es tan importante prestar atención a todo ello y sobre todo educar a nuestros hijos e hijas sin mirar hacia otro lado. Sin ignorar sus preocupaciones y sin una venda en los ojos que nos haga creer que son perfectos.

### Bueno, el estilo musical con el que desarrollas el proyecto es mucho más sosegado que el sonido que siempre te ha caracterizado. ¿Es tu proyecto más personal?

No sé si personal, porque he abierto mucho la mente. Hay mucho de Jagoba por ejemplo. Yo vengo del heavy metal, un estilo que también expresa mucho sentimiento, pero de una manera diferente y para un público más concreto. Esto en cambio, es mucho más abierto, más sencillo de escuchar, sobre todo por la velocidad de las canciones y la limpieza de la producción. Cuando me embarqué en un proyecto en solitario, sabía que necesitaba el alma de mucha gente. Por eso me llena mucho más aun, que las personas que lo complementen, tanto en la banda como en el disco, o en el proyecto en sí, puedan sentirlo como suyo y se identifiquen con él tanto como yo.

# La Asociación Kiribile de Sopela elabora el primer mapa real de golondrinas y vencejos de la localidad



La asociación Kiribile de Sopela ha presentado recientemente los resultados de la dinámica "Enara 2023" que ha desarrollado durante la primavera y el verano de 2023. Se trata de una dinámica realizada con el objetivo de conocer el número de nidos de estas especies en Sopela y divulgar entre los y las vecinas la importancia de facilitar la reproducción de las golondrinas comunes, las golondrinas azpizuri y los vencejos comunes en el municipio y que ha sido llevada a cabo con el apoyo de la participación de diez vecinos y vecinas, que han sido las encargadas de recopilar fotografías y datos de los mismos.

En cuanto a la golondrina común, hay 18 nidos confirmados en Sopela y los nidos utilizados son 14. Las golondrinas reproductoras son 28, y la estimación de las nuevas golondrinas es de 56, 4 por nido. Asimismo, son 84 las golondrinas que han regresado a África. Respecto a esta especie, la asociación cree que "puede haber más nidos y en esta primera iniciativa no se han podido confirmar todos".

En cuanto a la golondrina azpizuri o avión común, hay 81 nidos y restos confirmados y los nidos utilizados son 67. Las golondrinas reproductoras son 134, y la estimación de las nuevas golondrinas son 268, cuatro por nido. Asimismo, son 402 las golondrinas de este tipo que han regresado a África. En el informe comparado, la asociación señala que la localiza-

ción de estos nidos ha sido "más fácil", ya que al estar en los aleros de los edificios "se les veía con facilidad". Aunque no se ha realizado ningún recuento oficial en torno a los nidos rotos, sí se han observado restos que han existido en alguna ocasión en distintos puntos. Algunos han sido contabilizados y en los edificios donde se ubican, se ha buzoneado una hoja informativa por parte de la Asociación.

"Hemos podido confirmar 67 nidos ocupados. En cada nido se ha instalado una pareja. Por lo tanto, al menos se ha confirmado que 134 Aviones comunes han venido a reproducirse a Sopela. Destacar la colonia de Sopelmar y la creada cerca del cauce del Gobela", han confirmado desde la asociación.

Por último, en cuanto al vencejo común, hay 30 nidos confirmados y usados. Los reproductores son 60 y la estimación es de hasta 60, dos por nido. Asimismo, son 120 los vencejos que han regresado a África. La asociación ha calificado de "difícil" el seguimiento de esta especie. Nidifican en agujeros, por lo que no son visibles.

"Al hacer los nidos en oquedades de edificios no están a la vista. Para ubicarlos, cuando los vemos volando tenemos que dedicar un tiempo a observarlos y confirmar donde se introducen. Confirmado uno de esos nidos, si hay más vencejos en



vuelo o más oquedades parecidas, habrá que seguir observando si entran, si se asoman o comprobar que haya excrementos debajo de esos agujeros", han asegurado.

Asimismo, han destacado la colonia que hay en la ikastola Ander Deuna: "Hay muchos agujeros en los aleros y confirmamos que se introducían al menos en dos de ellos. Debajo de otras 7 oquedades había claros restos de excrementos que indicaban que han estado ocupados".

## REPETIR LA DINÁMICA

A la vista de la información obtenida, la asociación destaca que a través de "un gran trabajo de divulgación" se ha conseguido una primera foto y mapa del pueblo, por lo que "es voluntad de la asociación repetir esta dinámica". Comentan no haber tenido constancia de vecinos o vecinas molestas por los excrementos, etc", al mismo tiempo que consideran que la respuesta obtenida de bastantes vecinas y vecinos ha sido "muy cercana y positiva".

Y para seguir con esta dinámica de sensibilización, plantean estar con los diferentes centros educativos para proponer que favorezcan la instalación de estos nidos en los edificios (No tapar oquedades, colocación de "nidos artificiales", no quitar los nidos que se instalen, hacer recuentos anuales de centro incorporando estas dinámicas a favor de la biodiversidad en la vida del centro, bandejas para recogida de excrementos, etc), así como estar con los y las Administradoras de fincas para darles a conocer las conclusiones y animarles a que cuando se hagan obras no cierren las oquedades ni retiren nidos. En caso de ser inevitable tapar-retirar nidos, "planteamos la posibilidad de colocar nidos artificiales que ofrezcan alternativas cuando regresen estas aves".

Por último, desde KIRIBILE también quieren animar a vecinos y vecinas de Sopela a participar en la próxima campaña del mapeo de golondrinas y vencejos que se pondrá en marcha la próxima primavera.

# Elkarrizketa

**Ihart Arakistain: "Gero eta neska gehiago gaude zesta puntaren munduan, jendeak ikusi egin nahi gaitu eta frontoiak betetzeko gai garela erakutsi dugu"**

Ihart Arakistain puntista sopeloztarra munduko zesta-punta jokari ospetsuenetako bat da jada. 16 urte besterik ez dituen arren, frontoiaren eta "bizkortasunaren" maitale honek trofeoak eta errekonozimenduak pilotzen jarraitzen du. Arakistain gogotsu eta itxaropentsu agertzen da zesta-puntaren egungo egoera onarekin eta bere etorkizunarekin. Baina batez ere, emakumeak pixkanaka modalitate honetan bere "lekutxo" hartzen ari direla ikustearekin.



**Duela gutxi, Eneritz Lizardirekin batera, 2023ko Zesta Puntako Euskal Herriko Elite Txapelketako txapela jantzi duzu. Nola bizi izan duzue? Zer suposatu du zuretzat?**

Txapelketa gogorra izan da, exigentzia handikoa eta izugarriko maila egon da. Euskal Herriko puntista onenak ibili gara jokatzeko eta txapela berriro ere irabaztea itzelezko lorpena izan da. Niretzat, momentuko txapelketarik garrantzitsuena da, eta, hasieratik argi izan dut nire helburua; maila ona ematea eta txapela etxera eroatea. Oso gustora jokatu dut. Mutrikun, barikuro frontoia beteta ikustea izan da saririk onena.

**Iaz ere, Munduko Kopan parte hartu zenuen. Nolako izan zen esperientzia?**

Oso esperientzia polita izan zen, gazteenetarikoa nintzen eta beldur apur batekin joan nintzen, maila emango ote nuen edo ez pentsatuz. Baina urte osoko lanak eta prestakuntzak beren fruitua eman zuten eta zilarrezko dominarekin itzuli nintzen etxera. Munduko pilotari onenekin kantxa partekatzea izugarria izan zen eta asko ikasi nuen.

**16 urte besterik izan arren, dagoeneko esperientzia handia duzu lehiaketan. Nola murgildu zifien zesta-puntaren munduan? Hitz egiguzu zure kirol-ibilbideaz.**

Egia esan, esku pilotan jolasten hasi nintzen 4 urte nituela, Sopelako frontoian. Nire bi neba nagusiek herriko taldean jolasten zuten, eta haien bidetari jarraituz, taldean sartu nintzen. Ia 10 urte pasa ditut eskuz jokatzeko, baina

11 urte nituela, zesta punta probatzea eskaini zidaten Berriatuan; kirola probatu nuen momentuan maitemindu nintzen, eta ordutik ez naiz frontoietatik irten. Nire ustez erakarri ninduen jokoaren bizkortasuna izan zen, abiadura, pilotaren zarata eta posturak.

**Ba al du pilotaren praktikak presentziarik Sopela eta Uribe kostan?**

Uribe Kostan pilota oso presente dago, eta afizio handia du Sopelan, Berangon, Algortan, etabar, baina pala eta esku pilota ikusten dira soilik; zoritxarrez bertako askok ez dute inoiz zesta puntari buruzko ezer entzun. Hau normala da zonalde honetan, izan ere, zesta puntak indar handia du Lea Artibain, Durangon eta nola ez Gernikan, baina hortik kanpo ez da ia ikusten.

**Joan den otsailean, ETB1ek Gernikako Winter Series emakumezkoen txapelketa eman zuen. Emakumezkoen zesta-punta txapelketa bat telebista publikoan agertzen zen lehen aldian izan zen. Zer esan nahi du zuretzat?**

Winter Series txapelketa emakumeon zesta puntak izan duen aukerarik handiena izan da. Ohituta geunden publiko barik jokatzera, txapelketa txikietan parte hartzera baina, bat batean halako gauza handi baten parte izatea sinesgaitza izan zen. Momentuan ez ginen ohartzen, baina historia egiten ari ginen; lehenengo emakumeak izan gara EITB-n Winter Series bezalako txapelketa handi bat jokatzeko, Durangoko frontoian hiru astelehenez jarraian sarrerak agortu genituen, eta, garrantzitsuena, guk ere maila dugula

erakutsi genuen, emakumeon zesta punta alde guztietara zabalduz.

**Nola ikusten duzu emakumearen presentzia zesta-puntan? Eta kirolean oro har?**

Egungo egoera oso desberdina da duela bi urteko egoerarekin alderatzen badugu. Gero eta neska gehiago gaude zesta puntaren munduan, jendeak ikusi egin nahi gaitu eta frontoiak betetzeko gai garela erakutsi dugu. Interesa badago, eta guk aprobetxatu egin behar dugu. Lan asko dago egiteko, baina bide onetik gabiltza, eta horrela jarraituz gero gauza handiak egingo ditugu.

**Zesta-punta indarra hartzen eta pilotarekiko galdutako eremua berreskuratzen ari al da?**

Noski baietz. Daniako frontoia ixteak zesta puntaren galera ekarriko zuela zirudien, baina alderantziz izan zen. Euskal Herrian inoiz baino indar handiagoa hartu du zesta puntak eta arlo guztietan haziz joan da. Jendea interesaturik dago, telebista ere bai eta pilotariak izugarriko maila ari dira erakusten; eta hau hasi besterik ez da egin.





## Munarrikolandaren abenduko-urtarrileko irteerak

Munarrikolanda taldeak Itxinara irteera batekin itxiko du urtea abenduaren 17an, igandea. Orozkotik irten eta Axkorrigan (1099m) igoko dugu, Atxulaurren begi emblematikotik igarota.



Informazio gehiago [www.munarri.com](http://www.munarri.com) webgunean edo 696 731 662 telefonora deituz.

Gainera, urtarrilaren 20an, larunbata, Aranguren eta Taxoare (Nafarroa) mendilerroetatik zeharkaldi bat egingo dugu. Arangurenen hasiko dugu ibilbidea, Irulegi (893 m), Pagadi (898 m) eta Taxoareko gaina (672 m) igo eta Noainen amaituko dugu ibilbidea.

## Fiesta de fin de año en Lagun Artea

El próximo día 28 de diciembre, jueves, el Hogar del Jubilado - Lagun Artea celebrará el fin de año con una fiesta donde no faltarán los turrónes, los dulces y una copa de cava. ¡Estáis tod@s invitad@s!



## Gabon Kantak 22an Urepel Abesbatzaren eskutik

Urepel Abesbatzak gabon giroz beteko ditu Sopelako kaleak, trikitrixak lagunduta gabon kantak abestuz. Kalejira abenduaren 22an izango da Sopelako erdiguneko kaleetan, 19:30etik aurrera. Etorri gurekin kantatzera!



## Canciones de Navidad el 22 de la mano de Urepel Abesbatza

Urepel Abesbatza llenará de ambiente navideño las calles de Sopela cantando villancicos acompañados de trikitrixa. La kalejira tendrá lugar el día 22 de diciembre por las calles del centro de Sopela, a partir de las 19:30 horas. ¡Ven a cantar con nosotr@s!

## Hilabeteko komertzioa FÚSSUME SHOWROOM

Bienvenidos a Fússume, un refugio para nuevos diseñado@s. Un espacio donde la moda se fusiona con la creatividad y donde los vínculos se tejen con pasión. Además de un showroom, somos un punto de encuentro para mentes creativas y marcas independientes que comparten nuestros valores fundamentales: cultura, temporalidad, Calidad y diseño.

En Fússume valoramos la importancia del diseño independiente y el talento que hay por detrás de cada pieza. Nuestro objetivo principal es construir y nutrir vínculos tanto internos como externos, creando conexiones significativas entre artistas, diseñador@s y amantes de la moda.

Fússume se destaca por ofrecer

prendas versátiles y únicas que permiten a sus clientes lucir espectaculares en eventos especiales y a la vez incorporarlas en su vida diaria. El showroom se erige como un espacio para experimentar con la moda y combinar prendas con la personalidad de cada individuo, fomentando la creatividad y la autenticidad en el estilo personal sorprenderse y descubrir estilos distintos. En Fússume, la moda es mucho más que simplemente vestirse; es una experiencia para sorprenderse y descubrir estilos distintos.

Fússume no es solo un espacio de exhibición, sino un lugar que busca crear conciencia sobre el consumo responsable y la importancia de valorar la calidad y la durabilidad en cada pieza. Además de ser una

plataforma para artistas nacionales e internacionales, Fússume brinda asesoramiento y distribución de productos en otros establecimientos, con el objetivo de apoyar el crecimiento y la expansión de las marcas y diseñadores.

**¡Una experiencia única para los amantes de la moda y la expresión personal**

Nos encontrarás en:

📍 Calle Enrike Urrutikoetxea Kalea 5 de Sopela.

☎ También puedes llamarnos al 642 44 45 51. ¡Estaremos encantadas de asesorarte!

Y no olvides seguirnos a través de nuestras redes sociales:

📌 @Fússume

📌 @Fússume



# Igone Arteagabeitia

## "Kantatzea emozioak transmititzeko modu bikaina da eta horrek mesede egiten dio gure osasun mentalari"



Urte luzez hainbat abesbatzetako partaide eta zuzendari izan ostean eta inguruko herrietan emakumez osatutako abesbatzen urritasunak jota, Igone Arteagabeitiak erronka berri bati ekingo dio: **Uribe Kostako emakumeen abesbatza bat sortzea. Modu horretan, taldea eratzeko deialdia egiten die kantua gustuko duten Uribe Kostako emakume guztiei. Hala, berarekin izan gara proiektu berri honen nondik norakoak hurbiletik ezagutzeko asmoz.**

### **Nondik datorkizu Uribe Kostan emakumeen abesbatza bat sortzeko ideia?**

Urte asko daramatzat abesbatzen munduarekin lotuta, 1977an Euskal Herriko Unibertsitate Abesbatza sortu zenetik, non koralista eta zuzendariorde izan nintzen. Aldi berean, Portugaleteko Kanpazar ikastetxe publikoko ahots zurien abesbatza sortu nuen, eta duela gutxitik lubilo Bilbao abesbatza zuzentzen ari naiz. Nire bizitzako garai honetan, ilusioa egiten zidan gure inguruan proiektu berri bat hasteak. 22 urte daramatzat Sopelan bizitzen eta Sopolako Zipiriñe ikastetxe publikoan amaitu nuen nire lan-bizitza, bertan musikako irakasle eta tutore izan bainintzen.

Puntua iritsi zenean, Uribe Kostako abesbatzen egoera aztertu nuen eta konturatu nintzen, Getxon izan ezik, gainerako herrietan ez zegoela emakumeen abesbatzarik. Horregatik, eta azken urteotan gizon koralistak falta zaizkigula ikusita, proiektua abiaraztera animatu nintzen.

### **Nori zuzenduta dago proiektua?**

Gure inguruko emakume guztiei kantu koralak gustatzen bazaie eta proiektu berri honetan kantuz gozatu nahi badute.

### **Ezinbestekoa al da ondo abesten jakitea?**

Nik esango nuke ezinbestekoa ondo entonatzeko jakitea dela. Musika irakurtzen jakinez gero, primeran, baina benetan ezinbestekoa entonatzeko jakitea da. Ondo abestea denboraz ikasi eta hobetu daitekeen zerbait da, dedikazioz eta ahots-teknika landuz, ahots-gaitasunak hobetu daitezke. Nik urte asko daramatzat ikasten...

### **Abestiak euskaraz izango dira?**

Euskarazko abestiek eta euskal egile eta konpositoreek leku nabarmena izango dute erreperorioan, baina benetan lantzea merezi duen garai eta herrialde guztietako egileen musika koral zoragarri asko dago. Azken finean helburua abestiekin gozatea da.

### **Kantuak, ahotsak, existitzen denetik gizakia lagundu duela dirudi, bere lanetan, ospakizunetan, agurretan, etabar. Zer leku du herri musikan?**

Uste dut oso leku garrantzitsua duela. Edozein herritako kultur adierazpenak behatzea besterik ez dago musika eta kantua adierazpen aberasgarrietako bat direla ikusteko.

### **Zein da gaur egungo abesbatzen egoera?**

Euskal Herriko abesbatzen egungo egoera, nire ustez, kezkarria da. Beti izan gara oso herri kantaria, izan ere, herri guztietan daude abesbatzak, eta horrek agerian uzten du sortzen duen interesa, baina abesbatza *amateurren* egungo batez besteko adina oso altua da eta ez dago erreleborik. Hau da, ez dago haurren eta gazte koralisten korupuru nahikorik jarraitutasuna ziurtatzeko. Haur eta gazteen abesbatzak maila handikoak izaten dira oro har, musika ikasketak dituzten pertsonenak, baina zaletu taldeak desagertzeko joera dute. Hori ez gertatzeko neurriak hartzeko gai izan beharko genuke, euskal kulturarentzat galera handia izango litzatekeelako.

### **Zer ikasten da abesbatza batean kantatzeaz gain? Zer balio transmititu nahi dira? Zeintzuk dira abestearen onurak?**

Koru batean kantatzea egin daitekeen jarduerarik atsegingarrietako bat da. Talde-lanaren, elkartasunaren, taldearekiko erantzukizunaren, enpatia, entzuteko gaitasunaren eta besteekiko errespetuaren balio guztiak lantzen dira. Kantatzea emozioak transmititzeko modu bikaina da, eta horrek mesede egiten dio gure osasun mentalari. Gure gizarte-trebetasunak garatzen ditu eta gure gizarte-bizitza hobetzen du. Kontzentrazioa eta memoria lantzen du. Gure jakin-mina eta sormena garatzen ditu, eta ongizate pertsonala hobetzen laguntzen digu. Denak dira onurak.

### **Interesa duten pertsonak zer egin behar dute koruaren parte izateko?**

Horretarako, nahikoa izango da solikurra@gmail.com helbidera idaztea edo 630568757 telefonora deitzea.

### **Zein da zure ibilbidea kantuaren munduan?**

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) abesbatzaren sortzailea izan nintzen 1977an, Julen Ezkurra maisuaren proposamenez sortutako abesbatza. Han egon nintzen koralista eta zuzendariorde bezala urte askoan. Aldi berean, nire herria den Portugaleteko Kanpazar ikastetxe publikoko ahots zurien abesbatza sortu eta zuzendu nuen, han irakasle aritu nintzenez. Geroago, Leioako San Juan Bautista abesbatzan kantatu nuen, Basilio Astulezen zuzendaritzapean. 11 urtez, lubilo Bilbao Abesbatza zuzendu dut. Musika irakaslea ere izan naiz Getxoko Aixerrota institutuan eta Sopolako eskola publikoan, bertan aritu bainaiz irakasle, erretiroa hartu arte.

**Uribe Kostako emakumeak kantuz elkartuta.**

**Mujeres de Uribe Kosta unidas por el canto.**



Gurekin kantatuz gozatu nahi baduzu

Si quieres cantar **630568757**  
con nosotras [solikurra@gmail.com](mailto:solikurra@gmail.com)



## Gabonak jardueraz beteta iritsiko dira Sopelara



Gabonak gero eta hurbilago daude! Hori dela eta, Sopelako Udaleko Kultura Sailak Gabon eta ko kanpainaren harira programazio potoloa prestatu du. Bertan, kultura eta aisialdiko jarduera ugari biltzen dira gustu eta adin guztietako publikoentzat. Arte eszenikoak, musika eta, batez ere, haurrentzako jarduerak izango dira programazioaren ardatz nagusiak. Aitziber Onaindia Kultura zinegotziaren hitzetan, programazio "zabala da, anitza, guztientzako egina, baina etxeko txikiengana pentsatua bereziki".

Horrela, Abenduaren 16an Urepel Abesbatza, Lagun Artea Abesbatza eta Islaresko Ganbera Abesbatza motorrak berotzen hasiko dira Kurtzio Kultur Etxean

19:00etatik aurrera egingo den gabon kanten kontzertuarekin.

Etxeko txikienei zuzenduriko ekimenak Kurtzio Kultur Etxean burutuko dira, besteak beste, **'Yuku eta Himalaiako lorea'** (abenduak 17), **'Andereño'** txotxongilo-antzerkia (abenduak 22), **"Loop"** dantza ikuskizuna (abenduak 30). **Urte barri haur animazioa** (urtarrilak 1) eta **'Anbotoko Mari'** (abenduak 26), **'Kutxartean'** (urtarrilak 2), **'Mr. Bo'** (urtarrilak 4) eta **'Loti ederra'** (urtarrilak 7) umeentzako antzerkiak.

Gainera, abenduaren 26tik urtarrilaren 7ra arte **izotz-pista** jarriko da berriro ere Urgixieta plazan, dudarik gabe, familian ederki pasatzeko aukera bat. Egun beretan, **Txu-Txu tren**a herriko hainbat txokotatik ibiliko da, bertako aberastasun guztia ezagutarazteko eta kaleetan jarriko diren argiekin gozatzeko aukera emanez. Horretaz gain, abenduaren 27, 28 eta 29an **Haurrentzako Gabonetako Parkeak** ilusioa ekarriko du berriro ere Urko Polikiroldegira.

### OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Gabon gauean, **Olentzerok eta Mari Domingik** harrera egingo diete sopoloztarrei 17:00etatik aurrera. Larrabasterratik irtengo dira eta herriko erdigunea zeharkatuko dute Udaletxeko plazara iritsi arte.

Era berean, urtero legez, kirolaren esparruak

### OLENTZERO ETA MARI DOMINGI GUTUNAK BIDALTZEKO POSTONTZIA

Olentzero eta Mari Domingi Kurtzio Kultur Etxean egongo dira abenduaren 12tik aurrera zuen gutunak jasotzeko.

Ez ahaztu zuon gutunak ekartzen!

### BUZÓN PARA DEJAR LAS CARTAS PARA OLENTZERO Y MARI DOMINGI

Olentzero y Mari Domingi estarán en Kurtzio Kultur Etxea a partir del 12 de diciembre para recoger vuestras cartas.

¡No olvidéis dejar las vuestras!



ere bere lekua izango du, abenduaren 31an ospatuko den **San Silvestre** lasterketarekin (Informazio gehiago: [triatlonsopelana.org](http://triatlonsopelana.org)).

Azkenik, urtarrilaren 5ean, ohiko kabalgata eta errege magoei egindako harrerak itxiko dituzte Gabonak. 18:00etan irtengo dira Larrabasterratik eta harrera Udaletxeko plazan egingo zaie.

## Errege magoen kabalgatan parte hartu nahi duzu?

**Errege Magoen kabalgatan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete abenduaren 31a arte, [info@sopela.eus](mailto:info@sopela.eus) helbidera mezu elektronikoko bidez. Izen-abizenak, jaioteguna eta harremanetarako telefonoa adierazi beharko dira. Gainera, urtarrilaren 5ean 12:00etan udaletxera joan beharko dira, antolaketarako eta jantziak entregatzeko egingo den batzarrera.**

Las personas que quieran participar en la cabalgata de los Reyes Magos como pajes pueden inscribirse hasta el 31 de diciembre enviando un e-mail a [info@sopela.eus](mailto:info@sopela.eus). Deberán indicarse nombre y apellidos, fecha de nacimiento y teléfono de contacto. Además, deberán acudir el día 5 de enero a las 12:00 al ayuntamiento a una reunión para la organización y entrega de los trajes.



# ABENDUA / DICIEMBRE

**ABENDUAREN 4TIK URTARRILAREN 7RA** / del 4 de DICIEMBRE al 7 de ENERO

## 43 MIRADAS DE PREVENCIÓN

**Argazki-erakusketa** / Exposición fotográfica

**Antolatzailea** / Organiza: **UK FOTO ELKARTEA**

**12 ASTEARTEA** / MARTES

## EL CAMINO INTERIOR EN TIEMPOS DIFÍCILES

**Hitzaldia** / Charla

**Hizlaria** / Ponente: **Daniela Martina Novatzky**

**Tokia** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **18:00**

**Sarrera** / Entrada: **Doan** / Gratuita  
**Gaztelaniaz** / En castellano  
**Antolatzailea** / Organiza: **Sopela Zurekin**

**14 OSTEGUNA** / JUEVES

## LA MATERNAL

**Genero ikuspegiko zinema-foruma** / Cine-fórum con perspectiva de género

**Toki** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **18:00**

**Sarrera doan** / Entrada gratuita  
**Gaztelaniaz** / En castellano

**16 LARUNBATA** / SÁBADO

## GABON-KANTEN KONTZERTUA / CONCIERTO DE VILLANCICOS

**Abesbatzak** / Coros: **Urepel Abesbatza, Lagun Artea Abesbatza eta Coro de Cámara de Islares**

**Tokia** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **19:00**  
**Sarrera doan** / Entrada gratuita

**17 IGANDEA** / DOMINGO

## YUKU ETA HIMALAIAKO LOREA

**Zinema familiarra** / Cine Familiar

**Tokia** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **18:00**  
**Sarrera doan** / Entrada gratuita  
**Euskaraz** / En euskera

**21 OSTEGUNA** / JUEVES

## BUENA SUERTE

**Genero ikuspegiko zinema-foruma** / Cine-fórum con perspectiva de género

**Tokia** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **18:00**

**Sarrera doan** / Entrada gratuita  
**Gaztelaniaz** / En castellano

**22 OSTIRALA** / VIERNES

## ANDEREÑO (Cia. Anita Maravillas)

**Txotxongilo-antzerkia** / Teatro de títeres

**Tokia** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **18:00**

**Sarrera** / Entrada: **4,00 € / 5,00 €**  
**Euskaraz** / En euskera  
**Nori zuzendua** / Edades recomendadas: **6 urtetik aurrera** / a partir de 6 años

**24 IGANDEA** / DOMINGO

## OLENTZERO ETA MARI DOMINGI GAUA

**Ordua** / Hora: **17:00**

**Tokia** / Lugar: **Larrabasterratik irten eta harrera udaletxeko plazan** / Salida desde Larrabasterra y recepción en la plaza del ayuntamiento

**26 ASTEARTEA** / MARTES

## ANBOTOKO MARI (Cia. Logela Multimedia)

**Umeentzako antzerkia** / Teatro infantil

**Tokia** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **18:00**

**Sarrera** / Entrada: **4,00 € / 5,00 €**  
**Euskaraz** / En euskera  
**Nori zuzendua** / Edades recomendadas: **3 urtetik aurrera** / a partir de 3 años

**ABENDUAren 26tik URTARRILAREN 7ra** / del 26 de DICIEMBRE al 7 de ENERO

## TXU-TXU TRENA / TREN TXU-TXU

**Tokia** / Lugar: **Sabino Arana 11 (Lubeko aurrean** / Frente a Lubeko)  
**Ordutegia** / Horario: **11:00-14:00 eta / y 17:00-20:00**

## IZOTZ PISTA / PISTA DE HIELO

**Tokia** / Lugar: **Urgitxieta plaza**  
**Ordutegi** / Horario: **11:00-14:00 eta / y 17:00-20:00**  
**Sarrera** / Entrada: **2,00 € (abenduairen 4tik aurrera salgai** / a la venta a partir del 4 de diciembre: **sarrerak.sopela.eus**)

**Ordutegi bereziak** / Horarios especiales:

**Abenduairen 31n eta urtarrilaren 5ean goizez bakarrik** / 31 de diciembre y 5 de enero solo por la mañana  
**Urtarrilaren 1ean zerbitzu gabe** / 1 de enero sin servicio

**27-28-29**

## UMEEN GABONETAKO PARKEA / PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD

**Ordutegia** / Horario: **11:00-14:00 eta / y 17:00-20:00**

**Tokia** / Lugar: **Urko kiroldegia** / Polideportivo Urko  
**Edukiera mugatua** / Aforo limitado

**30 LARUNBATA** / SÁBADO

## LOOP (Cia. Aracaladanza)

**Dantza ikuskizuna** / Espectáculo de danza

**Tokia** / Lugar: **Kurtzio Kultur Etxea**  
**Ordua** / Hora: **18:00**

**Sarrera** / Entrada: **4,00 € / 5,00 €**  
**Testurik gabe** / Sin texto  
**Nori zuzendua** / Edades recomendadas: **4 urtetik aurrera** / a partir de 4 años

**31 IGANDEA** / DOMINGO

## SAN SILVESTRE HERRI LASTERKETA / CARRERA POPULAR SAN SILVESTRE

**Ordua** / Hora: **12:00**

**Tokia** / Lugar: **Urgitxieta plaza**

**Izen-emateak** / Inscripciones:

**abenduaik 1-27** diciembre:

**triatlonsopelana.org (600 plaza / plazas)**

**Prezioa** / Precio: **3,00 €**

**Informazio gehiago** / Más información: **triatlonsopelana.org**